

Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak webgune berria du

2008/09/22

Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak erabat berri du bere webgunea. Oraingoa erabat txertatuta dago MUren webgunean, eta gordetzen ditu haren **irudi korporatiboa** eta **antolaketa**. **Errazagoa** da iristeko, **argiagoa** edukiak azaltzen eta **sinpleagoa** edukiak eta zerbitzuak aurkitzeko.

Berrikuntza asko ditu webgune berriak, esate baterako aplikazio bat zenbait material erreserbatzeko, hala nola ordenagailuak, taldelan gelak, ordenagailu eramangarriak eta bideo kamerak. Horrekin batera, informazio baliabide gehiago eskaintzen ditu (Source Elite datu-basea, Elsevierren liburu elektronikoen Referex bilduma), eta baita eduki eta atal berriak ere: gomendatutako bibliografia, bibliografia idazteko arauak eta inpaktu-adierazleak, besteak beste.

Mondragon Unibertsitateko Bibliotekaren eginkizuna da informazio baliabideak eskuratu eta hedatzea, eta laguntzea hiru esparrutan: irakaskuntza, ikaskuntza eta ikerkuntza.

